

Bizi-Kondizioen inkesta

Emitzen analisia

Encuesta condiciones de vida

Análisis de resultados

Lanketa / Elaboración:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia / Fecha:

III-2000

Argitalpena / Edición:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

La complejidad de los fenómenos sociales hace muy difícil cualquier intento de reunir en un sistema integrado de indicadores sociales toda la información disponible ya en estos momentos sobre los distintos ámbitos de preocupación social.

De todas formas, si queremos hacer frente a los crecientes requerimientos de estadísticas sociales, debemos profundizar no sólo en el análisis de las causas políticas, demográficas, económicas y culturales que están alimentando los distintos fenómenos sociales, sino que, a la vez, tenemos que ir reuniendo series de datos temporales que nos permitan descubrir cuáles son las tendencias en la vida social, para así poder prevenir las y encauzarlas si fuera necesario.

En los apartados siguientes se resume, sin demasiadas pretensiones, el estado de situación de las diferentes áreas que determinan la calidad de vida de las personas, subrayando, por un lado, las diferencias que existen entre las distintas zonas geográficas de la CAE y las condiciones de vida desiguales que tienen las familias en función de su status socioeconómico, y, por otro, la evolución que han tenido los distintos indicadores de bienestar entre los años 1989, 1994 y 1999.

RELACIONES FAMILIARES

Prácticamente toda la población del País Vasco vive en familias. Según los datos del último Censo, solamente cinco personas de cada mil no viven en familias. Es bastante evidente que la familia, además de cumplir otras muchas funciones importantes, cumple, también, la tarea fundamental de establecer el puente de relación entre el individuo y la sociedad. De su capacidad para crear un *clima familiar* favorable al cumplimiento de esta función va a depender el que sus miembros tengan un mundo relacional más o menos satisfactorio. Este ambiente relacional de la familia se analiza, fundamentalmente, a través de cuatro tablas de indicadores que miden la frecuencia con la que la familia como conjunto se relaciona con sus familiares, con sus parientes, con sus amigos y con sus vecinos.

En total son 28 indicadores diferentes, que permiten resumir de forma precisa la existencia, la frecuencia y el tipo de relaciones existentes entre las familias.

Respecto a la relación **con sus familiares**, podemos destacar, como más relevantes, tres datos:

- El 52% de las familias vascas se comunican telefónicamente una o varias veces a la semana con sus padres, hijos o hermanos.
- El 57% de las familias visita semanalmente a sus familiares más próximos.
- Una de cada 3 familias se reúne para comer o cenar alguna vez a la semana con sus familiares.

Incluso relaciones más intensas, como es el hecho de prestarse algún tipo de ayuda o servicio, lo realizan semanalmente el 47% de las familias vascas.

Gizarte-gertakariak hain dira konplexuak, non oso zaila izaten baita gizartearen kezka-arlo guztiei buruz erabilgarri dagoen informazio guztia gizarte-adierazleen sistema bateratu batean biltzen saiatzea.

Edonola ere, gizarte-estatistiken eskaera gero eta handiagoari erantzun nahi badiogu, gizarte-gertakari bakoitzean eragina duten politika, kultura, biztanleria, ekonomia eta ingurumen mailako kausak hobeto aztertu beharko ditugu. Aldi beran, denbora-serieak osatuz joan behar dugu: horrela, gizarte-bizitzaren joerak zein diren zehaztu ahal izango dugu, haien aurrean neurriak hartzeko, eta, behar izanez gero, zuzendu ahal izateko.

Hurrengo ataletan saiatuko gara laburbiltzen, handikeriatan erori gabe, nolako egoeratan dagoen pertsonen bizi-kalitatea zehazten duen arlo bakoitza. Alde batetik, aipatuko ditugu EAEko lurralde-eremuen artean dauden aldeak, bai eta familien bizi-kondizio desberdinak gizarte eta ekonomia arloko mailaren arabera. Bestetik, aztertuko dugu nolako bilakaera izan duten ongizatearen adierazle guztiek 1989, 1994 eta 1999 artean.

FAMILIA-HARREMANAK

Euskal AEko ia biztanle guztiak familian bizi dira. Azken zentsuko datuen arabera, mila pertsonatik bost soilik ez dira familian bizi. Beraz, begien bistakoa da ezen, familiak, garrantzi handiko beste funtzio asko izateaz gain, baduela aparteko garrantzia duen zeregina: norbanakoaren eta gizartearen arteko zubigintza egitea. Familia gai bada zeregin hori bete ahal izateko, *famili giro* egokia sortzeko, familiako kideek harreman-mundu asegarriagoa izango dute. Familiaren harreman-giro hori, batez ere, adierazleez osaturiko lau taulen bidez aztertu dugu. Adierazle horiek neurtzen dute familia noizero elkartzen den talde moduan familiartekoekin, senideekin, lagunekin eta auzokoekin.

Guztira, 28 adierazle dira, eta nahiko ondo laburbiltzen dute familien arteko harremanak zenbatekoak, noizerokoak eta nolakoak diren.

Familiartekoekin dituzten harremanei dagokienez, hiru datu aipa ditzakegu:

- Euskal familien % 52k astean behin edo behin baino gehiagotan hitz egiten dute telefonoz gurasoekin, seme-alabekin edo anai-arrebeekin.
- % 57k astero bisitatzeko dituzte hurbileneko familiartekoak.
- 3 familiatatik bat asteko egunen batean bazkaltzeko edo afaltzeko elkartzen da.

Harreman estuagoak ere izaten dituzte familiek elkarren artean: familien % 47k astean elkarri laguntza edo zerbitzuren bat ematen diote.

En el otro extremo están los que no tienen familia, un 2%, o los que, aún teniéndola, no se relacionan nunca con ella, un 1%. Si a estos porcentajes añadimos el grupo de familias con un mundo relacional prácticamente insignificante, en torno a un 4%, nos encontramos en el País Vasco con un colectivo formado por unas 35.000 familias que o bien no tienen familiares, o si los tienen no se relacionan nunca con ellos. Este colectivo, en 1994, era de 25.000 familias.

Podemos ya ratificar la defunción de la carta como un medio habitual hasta hace pocos años de comunicarse con la familia. A pesar del alto componente inmigrante de nuestra sociedad, sólo un 15% de las familias se comunica alguna vez al año por carta con alguno de sus familiares.

La estructura de las relaciones familiares **con los amigos** es, sin duda, mucho más significativa. Es ella, precisamente, la que mejor evidencia el grado de integración real de las familias con su entorno y, en definitiva, con su sociedad. Los tres datos más significativos en este apartado son:

- El 96% de las familias vascas se relaciona habitualmente con otras con las que no tienen ningún vínculo parental.
- El 61% se comunica telefónicamente con otras familias amigas una o varias veces a la semana
- El 60% se reúnen alguna vez al mes para comer o cenar juntos.

En el extremo opuesto encontramos, también, un grupo de unas 60.000 familias que no tienen amigos, y por tanto se ven privadas de algo tan elemental como es el poder establecer y compartir lazos de amistad con otras familias. En 1994 este grupo estaba formado por 70.000 familias.

Las relaciones **con los vecinos**, finalmente, cuando no son también relaciones de amistad, son muy poco significativas, y se limitan a los saludos en los espacios comunes y a prestarse pequeños favores.

Toda esta estructura relacional de las familias vascas se corrige de forma notable al introducir en el análisis variables geográficas, como el Territorio Histórico o la zona de residencia, y sobre todo al introducir variables como el status socioeconómico de la familia.

El cuadro 1 recoge el porcentaje de familias que semanalmente se relacionan con sus familiares, parientes, amigos y vecinos, así como el tipo de relación que mantienen.

Beste muturrean familiarik ez dutenak daude, % 2, edo familia izan arren harremanik ez dutenak, % 1. Ehuneko horiei harreman-mundu oso txikia duten familien taldea gehitzen badiogu (% 4 inguru), ikusten dugu hurbileko familiarik ez dutenen edo familia izan arren harremanik ez dutenen multzoa 35.000 familia ingurukoa dela Euskal AEn. 1994an, datu hori 25.000 familiakoa zen.

Baiezta dezakegu, bestalde, posta bidezko komunikazioa ia desagertu egin dela, nahiz eta duela urte gutxira arte familiarekin komunikatzeko ohiko bidea izan zen. Gure gizartean etorkin asko egon arren, % 15 baino ez da urtean behin postaz komunikatzen familiartekoren batekin.

Familiak **lagunekin** izaten dituen harremanen egitura, zalantzarik gabe, askoz adierazgarriagoa da. Hain zuzen, egitura horrek bistaratzen du ondoen familiek zenbateraino integratu diren benetan beren inguruan eta, azken finean, beren gizartean. Hiru daturik adierazgarrienak honako hauek dira:

- Euskal familien % 96k harremanak izaten ditu beste familia batzuekin, haiekin famili loturarik izan ez arren.
- % 61ek astean behin edo behin baino gehiagotan telefonoz hitz egiten dute beste familia adiskide batzuekin.
- % 60 hilean behin-edo elkartzen dira bazkaltzeko edo afaltzeko.

Beste muturrean, lagunik ez duen 60.000 familiako talde bat dago; beraz, talde horrek ez du adiskidetasun-harremanik ezarri edo partekatu beste familia batzuekin, nahiz eta hori oinarritzeko gauza izaten den. 1994an talde hori 70.000 familiak osatzen zuten.

Familiak **auzokoekin** izaten dituzten harremanak, azkenik, adiskidetasun-harremanak ez badira, ez dira oso aipagarriak izaten: jendeak elkar agurtzen du guztientzako tokietan eta mesede txikiak egiten dizkiote elkarri.

Harreman-egitura hori guztia modu aipagarrian aldatuko da azterketan geografi aldagaiak sartzen badira (esaterako, lurralde historikoa edo bizitegia), bai eta beste aldagai batzuk sartuz gero, batez ere, familiaren gizarte eta ekonomia arloko maila.

1. taulak biltzen du astero harremanak dituzten familien ehunekoak (familiartekoak, senideak, lagunak eta auzokoak), bai eta nolako harremanak izaten dituzten ere.

CUADRO 1	EAE C.A.E.	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	1. TAULA
FAMILIA PRÓXIMA					HURBILEKO FAMILIA
Llamarse por teléfono	75.0	73.3	74.7	76.2	Telefonoz deitu
Visitas	56.7	57.2	57.3	55.8	Bisitak
Prestarse ayuda	47.5	50.0	47.0	47.5	Elkarri lagundu
PARIENTES					SENIDEAK
Llamarse por teléfono	17.5	17.8	20.3	13.1	Telefonoz deitu
Visitas	11.0	14.7	11.8	8.2	Bisitak
Prestarse ayuda	10.4	14.8	11.9	6.2	Elkarri lagundu
AMIGOS					LAGUNAK
Llamarse por teléfono	60.7	60.3	58.6	64.2	Telefonoz deitu
Visitas	34.5	40.7	37.5	26.9	Bisitak
Prestarse ayuda	27.4	43.6	27.4	20.9	Elkarri lagundu
VECINOS					AUZOKOAK
Saludos	91.0	73.3	93.3	94.1	Agurtu
Visitas	10.1	13.2	10.1	8.8	Bisitak
Prestarse ayuda	14.4	16.8	16.1	10.7	Elkarri lagundu

Aunque ya en el cuadro anterior se pueden ver algunas diferencias importantes, éstas aparecen con mucha mayor nitidez si representamos los datos anteriores en un cuadro de valores relativos donde simplemente se refleje con un + o un - la situación relativa de cada zona respecto al promedio de la CAE.

Nahiz eta taula horretan garrantzizko alde batzuk antzematen diren, alde horiek argiago bistaratuko dira aurreko datu horiek baliore erlatiboaren taula batean irudikatzen baditugu; horrela, + edo - batez adieraziko da adierazle bakoitzaren egoera erlatiboa EAEko batez bestekoaren aldean.

CUADRO 2	1	2	3	4	5	6	7	8	9	2. TAULA
FAMILIA PRÓXIMA										HURBILEKO FAMILIA
Llamarse por teléfono	-	+	+	-	-	-	+	+	-	Telefonoz deitu
Visitas	+	-	+	-	+	-	+	-	-	Bisitak
Prestarse ayuda	+	+	+	-	-	-	+	-	-	Elkarri lagundu
PARIENTES										SENIDEAK
Llamarse por teléfono	+	-	+	-	+	-	-	-	-	Telefonoz deitu
Visitas	+	+	-	+	+	-	-	-	-	Bisitak
Prestarse ayuda	+	+	-	+	+	-	-	-	-	Elkarri lagundu
AMIGOS										LAGUNAK
Llamarse por teléfono	+	-	-	-	-	-	+	+	-	Telefonoz deitu
Visitas	+	+	+	-	+	-	-	-	-	Bisitak
Prestarse ayuda	+	+	+	+	-	-	-	-	-	Elkarri lagundu
VECINOS										AUZOKOAK
Saludos	-	+	+	+	+	-	+	+	-	Agurtu
Visitas	-	+	-	+	+	-	-	-	+	Bisitak
Prestarse ayuda	-	+	+	+	-	-	-	+	-	Elkarri lagundu

Parece que empieza a dibujarse, con cierta nitidez, los primeros contornos de lo que podemos llamar geografía vasca del bienestar.

Hay tres zonas en la CAE cuyo mundo de relaciones familiares es claramente más desfavorable: la zona 6, Encartaciones y Arratia-Nerviñ, que se corresponde con la parte más rural de Bizkaia; y la zona 9, que comprende las comarcas guipuzcoanas de Tolosa y el Goierri.

Al cruzar estos indicadores con el nivel de instrucción de la persona principal, o con el nivel de ingresos de la familia cuya correlación con el nivel de instrucción, como es obvio, es alta, se confirma el esquema relacional que ya adelantaron las encuestas de Condiciones de Vida de 1989 y 1994: las familias con un status social más alto se relacionan principalmente con amigos y concretan, además, su relación en visitas, reuniones y en unas comunicaciones telefónicas frecuentes, mientras que las familias menos acomodadas, por el contrario, se relaciona sobre todo con parientes y vecinos, y centran, además, su relación en las visitas y pequeños favores o servicios.

Este fenómeno, que podemos definir como tipología del comportamiento relacional, se resume en el hecho de que 8 de cada 10 familias con un status económico medio-alto se relacionan regularmente con sus amigos, mientras que sólo 5 de cada 10 familias con un status económico bajo mantienen alguna relación regularmente con sus amigos.

Comparando los datos de 1989, 1994 y 1999, la primera conclusión que se puede sacar es que el mundo relacional de las familias permanece bastante estable, situándose el porcentaje de familias que mantienen regularmente unas relaciones intensas con sus familiares más próximos en torno al 80%.

Las relaciones con los amigos, sin embargo, han variado más, pasando el porcentaje de familias que mantienen unas relaciones intensas con amigos del 51,7%, en 1994, al 68,5% en 1999.

Las diferencias por zona siguen siendo importantes, como recoge el mapa 1.

Badirudi gero eta argiago ari direla azaleratzen "euskal ongizatearen geografía" deituko diogunaren lehen zantzuak.

Harreman familiarren mundua, batez beste, ez da batere aldekoa EAEko hiru zonatan: 6. zonan, hau da, Enkartzioetan eta Arrati Nerbioin (Bizkaiko baserri-giroko eskualdeetan) eta 9. zonan (Gipuzkoako eskualde hauek hartzen ditu zona horrek: Tolosaldea eta Goierri).

Adierazle horiek pertsona nagusiaren eskolatzeko-mailarekin edo familiarren diru-sarrera mailarekin (maila horrek, gainera, lotura handia izaten du eskolatzeko-mailarekin) gurutzatzen baditugu, nabarmena denez, 1989 eta 1994ko bizi-kondizioen inkestetan aurreratu genuen harreman-egitura bera baieztatzen da: gizarte-mailarik altueneko familiak batez ere lagunekin izaten dituzte harremanak, eta bisita, bilera eta telefono bidezko elkarrizketa ugari izaten dute; maila apalagoko familiek, aldiz, batez ere senideekin eta auzokoekin izaten dituzte harremanak, eta elkarri bisitak eta mesede edo zerbitzu txikiak egiten dizkiote.

"Harreman-portaeraren tipologia" izenez definituko dugun fenomeno hori honela laburbil dezakegu: ekonomi maila ertain-altua duten 10 familiatik 8k harremanak izaten dituzte lagunekin; aldiz, ekonomi maila baxua duten 10 familiatik 5ek baino ez dituzte izaten harremanak lagunekin.


1989, 1994 eta 1999ko datuak alderatuz gero, hau da ateratzen dugun lehen ondorioa: familien harreman-munduak bere horretan dirauela, eta hurbileneko familiarrekin harreman estuak dituzten familien portzentajea % 80 ingurura iristen dela.

Lagunekin izaten diren harremanak, aldiz, gehiago aldatu dira: 1994an, lagunekin harreman estuak dituzten familien portzentajea % 51,7koa zen; 1999an, berriz, % 68,5koa.

Zonen arteko aldeak oraindik ere nahikoa handiak dira, 1. mapak erakusten duenez.

1. Lagunekin harreman estuak dauzkaten familien portzentajea

Porcentaje de familias que mantienen unas relaciones intensas con los amigos



ENTORNO FÍSICO Y SOCIAL

Todas las encuestas de opinión realizadas en los últimos años reflejan el creciente grado de preocupación ciudadana por el deterioro de las condiciones medioambientales. Aunque no siempre es fácil reducir la situación del entorno físico y social a unos pocos indicadores estadísticos, hemos seleccionado aquellos que suelen encabezar la lista de las preocupaciones sociales: la presencia en el barrio de delincuencia, droga, mendicidad, alcoholismo y robos, en la vertiente social, y la existencia de contaminación, ruidos y molestias externas, en general, en la vertiente física.

Con independencia de las verbalizaciones y actitudes que se suelen tener sobre estos problemas, y que a menudo están más en consonancia con los nuevos paradigmas ecologistas que con el rigor analítico, lo cierto es que en los últimos años ha cuajado en la conciencia ciudadana la preocupación por las condiciones medioambientales, y que el entorno, como condicionante del ambiente vital de la zona en la que residimos, se ha convertido en un determinante importante de nuestra calidad de vida.

El cuadro 3, que recoge el porcentaje de familias que considera que en su barrio existen los siguientes problemas, resume cuál es la situación del medio ambiente social en las diferentes zonas del País Vasco.

INGURUNE FISIKO-SOZIALA

Iritzi-inkesta guztiek adierazten dutenez, gero eta handiagoa da ingurumenaren narriadurari buruz dagoen kezka. Nahiz eta askotan ez den erraza ingurune fisiko eta sozialaren egoera adierazle estatistiko gutxi batzuetan biltzea, gizartearen kezken zerrendan lehen postuetan agertzen direnak aukeratu ditugu: ingurunearen alderdi sozialari dagokionez, auzoan delinkuentziarik, drogarik, eskaletasunik, alkoholismorik eta lapurretarik dagoenentz; eta ingurune fisikoaren alderdiari dagokionez, kutsadurarik, zaratarik eta, oro har, kanpoko eragozpenik dagoenentz.

Ez ditugu kontuan hartu jendeak arazo horiek nola adierazten dituen eta horien aurrean nolako jarrerak dituen, adierazpen eta jarrera horiek askotan lotura handiagoa izaten baitute mugimendu ekologisten eredu berriekin, ezen ez azterketa zurruneekin. Dena den, argi dago inguruneak, zentzu zabalean hartuta, bizi garen zonako bizi-ingurunea mugatzen duela, eta gure bizi-kalitatea ere baldintzatzen duela.

3. taulak laburbiltzen du nola dagoen ingurumen soziala EAEko zona bakoitzean. Taulak horrek jasotzen du arazo hauek beren auzoetan badaudela uste dutenen ehunekoa.

CUADRO 3	Guztira Total	1	2	3	4	5	6	7	8	9	3. TAULA
		Delincuencia	19.4	13.2	7.7	28.3	18.5	19.2	15.3	10.8	
Droga	28.4	31.7	12.1	35.3	32.7	36.9	30.0	22.6	16.7	34.1	Droga
Mendicidad	17.5	9.2	2.7	19.8	10.7	21.2	24.4	15.9	9.3	39.7	Eskaletasuna
Prostitución	5.1	1.5	0.0	7.8	4.0	2.2	0.5	4.2	1.8	6.8	Prostituzioa
Alcoholismo	23.9	12.5	10.5	27.1	32.3	39.5	14.3	17.0	23.4	35.8	Alkoholismoa
Robo en la vivienda	3.1	1.4	1.1	3.1	3.1	1.3	4.1	5.3	2.5	1.7	Lapurreta etxean
Robo en el coche	11.3	6.7	0.9	14.2	12.9	6.0	14.9	12.4	7.6	4.8	Lapurreta autoan

Hay varios datos en el cuadro anterior que merecen ser destacados. El primero, y más sobresaliente, es que la droga, la delincuencia y el alcoholismo son percibidos como graves inconvenientes sociales presentes en su zona de residencia por 1 de cada 4 familias vascas.

Con ligeras excepciones, la delincuencia y la droga caminan juntas en la apreciación de la gente. Aunque esta asociación seguramente está exagerada por la no siempre contrastada opinión de que la mayoría de los delitos contra la propiedad son cometidos por drogadictos, es evidente que existe una relación intensa entre ellas que hace que se multipliquen los efectos negativos de cada una.

Como cabría esperar, estos problemas se reparten geográficamente de forma desigual, afectando fundamentalmente a la zona del Gran Bilbao, toda la zona costera de Bizkaia, y en menor medida a Tolosa y Goierri.

De todas formas, el dato más importante en este apartado es la notable mejoría relativa que se ha producido desde 1994 en todos los indicadores del medio ambiente social. Así, la delincuencia que en 1994 afectaba al 28% de las familias, ahora sólo afecta al 19%. Igualmente, los problemas derivados del tráfico y consumo de droga han bajado, también, desde el 38%, en 1994, al 28% de 1999. Y lo mismo sucede con los robos y la mendicidad. Sólo la incidencia del alcoholismo parece haberse estancado en un 23%.

Por otro lado, el entorno físico es captado a través de la presencia y frecuencia en el barrio de las molestias externas y de la contaminación.

Merezi du aurreko taula horretatik datu bat baino gehiago aipatzea. Lehena eta aipagarriena honako hau da: droga, delinkuentzia eta alkoholismoa gizarte-eragozpen larritzat jotzen ditu eskal 4 familiatatik 1ek.

Salbuespen batzuk izan ezik, jendeak iritzi bera du delinkuentziari zein drogari buruz. Iritzi-elkarketa hori areagotu egiten da jendeak uste duelako jabetzaren aurkako delitu gehienak droga-zaleek egiten dituztela (uste hori, dena den, ez da guztiz egiazkoa). Begien bistakoa da, bestalde, badagoela lotura bat bi arazo horien artean, eta horrek areagotu egiten dituela arazo bakoitzaren eragin negatiboak.

Espero genuen bezala, arazo horiek ez dute eragin bera eskualde guztietan: eraginik handiena Bilbo Handian eta Bizkaiko kostaldean dute, eta neurri txikiagoan bada ere, baita Tolosaldean eta Goierriin ere.

Dena dela, hona hemen daturik aipagarriena: 1994az geroztik hobekuntza erlatibo nabarmena izan dute ingurumen sozialari buruzko adierazle guzti-guztiek. Horrela, delinkuentziak 1994an familien % 28n zuen eragina; orain, aldiz, % 19n baino ez. Era berean, droga-trafikoarekin eta -kontsumoarekin lotutako arazoak ere jaitsi egin dira, 1994ko % 38tik 1999ko % 28ra. Eta gauza bera gertatu da lapurreta eta eskaletasunarekin ere. Soilik alkoholismoaren eragina egonkortu bide da (% 23).

Ingurune fisikoa neurtzeko, bestalde, honako aldagai hau erabili dira: auzoan edo bizitegian kanpoko eragozpenik edo kutsadurarik dagoenentz eta noizero izaten diren.

CUADRO 4	Guztira Total	1	2	3	4	5	6	7	8	9	4. TAULA
MOLESTIAS EXTER.	38.0	29.4	15.6	44.8	48.2	21.5	32.9	35.2	34.4	34.1	KANPOKO ERAGOZ. Egunero Noizean behin Inoiz ez
Diariamente	60.3	39.8	49.2	66.5	66.7	44.4	28.4	63.1	59.1	45.0	
De vez en cuando	37.6	59.0	50.8	31.7	33.3	53.3	66.4	35.7	38.6	44.4	
Nunca	2.1	1.2	0.0	1.9	0.0	2.3	5.2	1.2	2.3	10.6	
CONTAMINACIÓN	23.9	6.9	15.5	28.7	51.9	15.6	28.5	13.1	29.9	39.5	KUTSADURA Egunero Noizean behin Inoiz ez
Diariamente	53.4	58.2	69.4	49.8	74.4	33.6	15.2	67.3	61.4	44.1	
De vez en cuando	44.4	2.5	30.6	47.5	25.0	64.4	82.4	31.1	38.6	50.4	
Nunca	2.2	0.0	0.0	2.7	0.5	2.0	2.3	1.6	0.0	5.5	

Para un 38% de las familias vascas, los humos, los ruidos y las molestias externas en general son problemas que tienen que padecer con cierta frecuencia en sus barrios, especialmente los residentes en el Gran Bilbao y en el Duranguesado.

Al contrario de lo que sucede con el medio ambiente social, las condiciones del medio ambiente físico han empeorado sensiblemente desde 1994. Las molestias externas que entonces afectaban al 30% de las familias ahora afectan al 38%, y la contaminación que afectaba al 19% de las familias ahora afecta al 24%.

Sin embargo, tanto entonces como ahora, lo más importante, como cabría esperar, es la concentración de las molestias externas y de la contaminación en aquellas zonas donde se concentran los principales núcleos urbanos, como muestra el mapa 2.


Euskal familien % 38rentzat, keak, zaratak eta gainerako kanpoko eragozpenak beren auzoetan nahiko sarri jasan behar izaten dituzten arazoak dira, batez ere Bilbo Handian eta Durangaldean bizi direnek.

Gizarte-ingurumenarekin gertatzen den ez bezala, ingurumen fisikoko baldintzak nabarmen okertu dira 19894az geroztik. Orduan, kanpoko molestiek familien % 30 eragiten zuten; orain, berriz, % 38rengan dute eragina. Kutsadurak familien % 31 eragiten zuen 1994an; orain, berriz, % 24 bakarrik.

Hala ere, bai lehen bai orain, espero genuen bezala, kanpoko eragozpenak eta kutsadura hiri nagusiak biltzen diren zonetan biltzen dira, 2. mapak erakusten digunez.

2. Beren herri, zona edo auzoan osasungarritasun gutxiko ingurugiroa duten familien portzentajea

Porcentaje de familias que en su pueblo, zona o barrio tienen un medio ambiente social poco saludable



EQUIPAMIENTO DE LA VIVIENDA

Parece fuera de toda duda que así como el barrio constituye un elemento básico en el desarrollo vital de cualquier persona, también la vivienda, y sobre todo su equipamiento, condiciona el estilo de vida de los individuos que las habitan. Además, el nivel de equipamiento interno de las viviendas puede ser utilizado como un buen indicador de la condición socioeconómica de las familias.

El primer dato que llama la atención, en este apartado, es que 2 de cada 10 familias vascas no disponen en su vivienda de alguno de los cuatro equipamientos considerados como básicos: teléfono, frigorífico-congelador, lavadora y cocina de gas o eléctrica. Además, 4 de cada 10 familias tienen un nivel de equipamiento medio y 4 de cada 10 tienen un nivel de equipamiento alto.

Continuando con las pautas que ya apuntó la encuesta de 1994, se confirma un incremento acelerado en la proporción de hogares que tienen equipamientos hasta hace poco considerados como muy selectivos. El microondas, por ejemplo, que en 1989 sólo lo tenía el 8% de los hogares, en 1994 ya lo tenía el 40% y en 1999 lo tiene el 67% de las familias vascas. La cadena de música también ha pasado en diez años del 26% al 68%, y el video del 32% al 72%. Incluso equipamientos más recientes como el ordenador, 31%, la televisión con teletexto, 50%, o la conexión a Internet, 7%, se van abriendo paso como equipamientos habituales en las viviendas de las familias vascas.

El nivel de equipamiento de la vivienda varía no sólo, como es obvio, según el nivel de ingresos de la familia, sino también según la edad de la persona principal. Son precisamente las familias más jóvenes las que, sin ser las poseedoras de un nivel de equipamiento más alto sí tienen en mayor porcentaje ciertos equipamientos que pueden tomarse como indicadores de un nuevo estándar de vida: microondas, cadena de música, video, ordenador personal, teléfono móvil, ...

ETXEBIZITZAREN HORNIKUNTZA

Auzoa, zalantzarik gabe, edozein pertsonaren bizi-garapeneko oinarrizko osagaia da; horrez gain, etxebizitzak ere, eta haien hornikuntzak, bertan bizi diren pertsonen bizimodua baldintzatzen du. Etxebizitzen barnealdearen hornikuntza-maila, gainera, familiaren gizarte- eta ekonomi maila neurtzeko adierazle egokitzat erabili izan da askotan.

Hona hemen lehen datu aipagarria: EAEko 10 familietatik 2k ez du etxean oinarrizkotzat jotzen ditugun lau hornikuntza hauetakoren bat: telefonoa, hozkailu-izozkailua, garbigailua eta sukaldea (gasekoa edo elektrikoa); 10etik 4k erdi-mailako hornikuntza dute, eta 10etik 4k goi-mailako hornikuntza.


1994ko inkestak ezarri zituen eredu jarraiki, etxe askotara zabaldu da orain dela urte gutxira arte oso 'selektibotzat' jotzen zenbait hornikuntza. Mikrouhin-labea, adibidez, 1989an etxeren % 8n bakarrik zegoen; 1994an, % 40ek zuten, eta 1999an euskal familien % 67k. Musika-kateak % 26tik % 68ra pasatu dira hamar urtetan, eta bideoak, % 32tik % 72ra. Beste hornikuntza berriago batzuk ere –hala nola ordenagailua (% 31), telebista teletestuduna (% 50) edo Interneteko konexioa (% 7)– bidea urratu dute, eta ohiko hornikuntza ari dira bihurtzen euskal familien etxebizitzetan.

Etxebizitzaren hornikuntza-maila, jakina, familiaren diru-sarrera mailaren arabera ez ezik pertsona nagusiaren adinaren arabera ere aldatzen da. Familiarik gazteenak dira, hain zuzen ere, hornikuntza-mailarik altuena ez izan arren, bizi-estandar berri baten adierazletzat jo daitezkeen zenbait hornikuntza dituztenak, hala nola: mikrouhin-labea, musika-katea, bideoa, ordenagailu pertsonala, sakelako telefonoa,...

Guztira Total	5. TAULA / CUADRO 5				5. TAULA / CUADRO 5		
	<35	35-59	≥60		<35	35-59	≥60
95.4	88.6	96.4	96.5	Telefonoa / Teléfono	-	+	+
25.9	23.3	30.7	19.9	Ontzi-garbigailua / Lavavajillas	-	+	-
84.5	83.4	88.4	79.5	Labe elektrikoa / Horno eléctrico	-	+	-
67.7	78.9	75.0	53.1	Mikrouhin-labea / Microondas	+	+	-
68.2	85.2	82.5	41.6	Musika-katea / Cadena de música	+	+	-
28.9	38.9	36.4	14.3	Sakelako telefonoa / Teléfono móvil	+	+	-
72.0	86.7	85.6	47.1	Bideoa / Vídeo	+	+	-
31.3	30.8	44.3	13.0	Ordenagailua / Ordenador	-	+	-
49.7	58.6	58.5	34.0	TB teletestuduna / TV con teletexto	+	+	-
6.7	5.0	10.3	2.3	Interneteko kon. / Con. a Internet	-	+	-
6.1	6.0	8.9	2.1	Posta elektronikoa / Correo electrón.	-	+	-
22.5	22.4	32.9	7.8	CD-ROMa / CD-ROM	-	+	-

Pero si hay un equipamiento familiar por excelencia, éste es el coche. El mapa 3 recoge, por zona, el porcentaje de familias que tienen coche.

Hornikuntzarik behinena, dena dela, autoa da. 3. mapak erakusten du zonaz zona autoa duten familien portzentajea.



EQUIPAMIENTO DEL ENTORNO

Muchas de las oportunidades de bienestar están asociadas a los equipamientos del entorno como escenario de la cotidianidad. Sus características y, sobre todo, los servicios y equipamientos de que dispone, forman parte de ese conjunto de elementos básicos que conforman la calidad de vida de las personas.

INGURUKO HORNIKUNTZA

Ongizatearen baliabide asko inguruko ekipamenduari lotzen zaizkio, hor egiten baitu jendeak eguneroko bizitza. Beraz, inguruaren ezaugarriek eta batez ere inguru horretako zerbitzuek eta hornikuntzek osatzen dute, besteak beste, pertsonen bizi-kalitatea.

CUADRO 6	6. TAULA										
	Guztira Total	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
Supermercado	90.4	92.2	51.9	93.7	93.0	77.8	70.0	93.5	82.4	88.9	Supermerkatua
Carnicería	92.3	93.3	53.8	94.1	93.3	80.6	80.0	96.7	89.8	88.9	Harategia
Pescadería	90.7	92.0	52.5	94.4	84.1	75.9	66.7	95.4	87.6	85.1	Arrandegia
Panadería	93.2	93.9	54.9	96.3	94.5	79.8	75.7	96.5	89.4	89.7	Okindegia
Frutería	92.3	93.7	52.5	95.3	91.7	79.6	70.6	96.1	88.6	88.0	Fruta-denda
Bar	96.4	95.4	74.2	98.7	96.1	90.6	88.8	97.5	94.7	92.2	Taberna
Farmacia	91.8	92.8	61.2	94.1	89.0	84.2	73.7	95.3	88.0	88.9	Botika
Teléfono público	93.6	94.7	71.2	94.7	94.5	85.0	76.2	97.5	92.2	91.2	Telefono publikoa
Venta de prensa	92.6	94.2	64.3	94.6	92.0	79.7	72.2	97.0	90.1	89.8	Prentsa-saltegia
Parada de autobús	93.0	95.1	27.2	95.8	87.2	84.4	82.1	96.6	89.2	91.9	Autobus-geltokia

El cuadro 6, aunque refleja una situación aceptable, especialmente en aquellas zonas en las que la concentración en núcleos urbanos es mayor, delata, también, las deficiencias en los equipamientos de otras zonas donde el componente rural es mayoritario

Centrándonos en las zonas de las tres capitales vascas: la 1, la 3 y la 7, donde, dicho sea de paso, reside más del 75% de las familias vascas, vemos que un 95% de las familias disponen en su entorno inmediato de las tiendas y servicios básicos para el normal desenvolvimiento de la vida diaria. Además, las diferencias entre las tres capitales son tan pequeñas, y el cambio con respecto a 1994 tan insignificante, que podemos afirmar que se ha tocado techo en cuanto a equipamientos del entorno se refiere.

De todas formas, con los indicadores territoriales conviene no sacar conclusiones apresuradas. A veces, una situación general incluso muy buena puede estar escondiendo deficiencias notables en determinados barrios de la ciudad.


Hurbileneko inguruari dagokionez, 6. taulak erakusten duen egoera oro har nahikoa ona da biztanleak batez ere hirietan biltzen diren zonetan. Ez da gauza bera gertatzen, aldiz, biztanle gehienak baserri-girokoak diren zonetan.

Euskal AEko hiriburuak kokatzen diren zonei dagokionez (1, 3 eta 7. zonak), horietan bizi baita euskal familien % 75, ikusten dugu % 95ek hurbileneko inguruan dituztela eguneroko bizitza normal burutzeko behar dituzten dendak eta zerbitzuak, hau da, oinez joanda hamar minututan. Gainera, hiru hiriburuaren arteko aldeak hain txikiak dira, eta 1994 urtearekiko aldakuntza hain urria, non esan dezakegun inguruko hornikuntzak goreneko mailara iritsi direla.

Lurralde adierazleei dagokionez, dena den, ez da komeni prezazko ondorioak ateratzea; izan ere, batzuetan egoera orokor oso on batek hiriko alde jakin egon daitezkeen gabeziak ezkutatzen baititu.

4. Beren inguru hurbilean zerbitzu gutxi dituzten familien portzentajea

Porcentaje de familias con pocos servicios en su entorno próximo



Respecto a otros equipamientos del barrio o zona de residencia como ambulatorio, parque, iglesia, parada de taxis, centro de EGB, cine, polideportivo, etc., la situación es igualmente buena en la ciudad y algo peor en el campo, como muestra el mapa 4.

RECURSOS ECONÓMICOS

Todos los autores que se han ocupado de estudiar la calidad de vida reconocen que renta y nivel de vida son circunstancias objetivas importantes, pero que por sí mismas no permiten predecir el nivel de satisfacción general de las personas.

Es evidente, que cuanto menor sea la capacidad adquisitiva de una familia más determinante va a ser su renta para conseguir sus objetivos de bienestar, pero también es cierto que a partir de un determinado umbral de riqueza, cuando las necesidades básicas ya están cubiertas, la renta empieza a perder prioridad y énfasis entre las preocupaciones de las personas.

Para aproximarnos a la situación económica de las familias vascas, hemos utilizado unos pocos indicadores que no pretenden establecer los ingresos familiares en sentido estricto sino determinar la situación de desahogo o aprieto económico de las familias.

Auzoko edo bizitegiko beste hornikuntza batzuei dagokienez –hala nola, anbulatorioa, parkea, eliza, taxi-geltokia, OHOk ikastetxea, zinema-aretoa, kiroldegia, etab.–, hirietan nahikoa ona da egoera, eta zertxobait okerragoa landan, 4. mapak erakusten digunez.

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Bizi-kalitatea aztertzeaz arduratu diren ikertzaile guztiek aitortzen dute errenta eta bizi-maila garrantzi handiko gertakari objektiboak direla, baina berez ez dutela ahalbideratzen pertsonen asetze-maila neurtzea.

Begien bistakoa da, dena den, familia baten erosmena zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta erabakigarriagoa izango dela bere errenta ongizate-helburuak betetzeko. Egia da, halaber, aberastasun-maila jakin baten gaineratik, oinarrizko beharrak estalita daudelarik, errentak lehentasuna eta garrantzia galtzen duela pertsonen kezka nagusien artean.

Familien ekonomi egoerara hurbiltzeko, adierazle gutxi batzuk erabili ditugu, eta horien helburua ez da familien diru-sarrerak zehatz-mehatz jakitea; baizik eta, familiak diruaren aldetik larri edo lasai dabilzan ezagutzea.

CUADRO 7	Guztira Total	1	2	3	4	5	6	7	8	9	7. TAULA
Restric. económicas	27.3	23.9	17.7	30.6	29.1	30.4	30.9	30.1	16.2	11.8	Diru-murriztapenak
Alimentación	19.8	11.7	12.8	21.5	38.8	18.0	39.8	14.8	17.0	19.9	Jan-edariak
Vestido y calzado	54.8	39.2	49.5	65.2	66.1	38.9	88.0	37.6	60.7	34.5	Jantzi-oinetakoak
Equipam. del hogar	47.5	45.4	47.2	52.8	60.1	39.8	61.2	33.4	46.3	54.1	Etxearen hornikuntza
Ocio	75.2	76.1	74.9	76.1	45.5	91.8	71.9	83.0	58.5	37.5	Aisialdia
Ingresos insuficientes	32.7	25.5	19.6	36.7	36.4	29.3	48.6	36.8	17.9	22.5	Diru-sarrera urriak
Ha pedido ayuda	11.0	9.1	6.3	11.6	10.2	7.9	8.6	14.8	7.3	8.7	Laguntza eskatu du
Ingresos inestables	12.0	12.1	17.3	10.5	12.9	17.5	18.2	13.7	10.0	11.3	Diru-sarrera ez-finkoak
Situac. Econom. peor	21.3	17.0	15.1	25.9	21.1	14.8	22.3	22.5	11.5	12.4	Ekonomi egoera okerragoa

A la luz de los datos anteriores, lo primero que hay que decir es que la situación económica de las familias vascas en 1999 es mucho mejor que la que reflejó la encuesta de 1994. Dejando a un lado el hecho de que 1 de cada 3 familias considera sus ingresos como insuficientes, apreciación excesivamente subjetiva para sacar otras conclusiones, sólo un 21% de las familias del País Vasco consideran que su situación económica ha empeorado a lo largo de los tres últimos años, cuando en 1994 este porcentaje era del 45%. Por el contrario, un 20% de las familias, más del doble que en 1994, considera ahora que su situación económica ha mejorado.

El tener que imponerse algunas restricciones en sus gastos ha descendido del 47% al 27%. Estas restricciones económicas afectan fundamentalmente y por este orden a los gastos en ocio, vestido, calzado y equipamiento del hogar.

También hay que destacar que mientras en 1994 una de cada 4 familias consideraba que sus ingresos eran inestables, ahora sólo una de cada 10 los considera igualmente inseguros, y sólo

Aurreko datuen arabera, lehenik eta behin esan behar da euskal familien egoera 1994ko inkestak islatu zuena baino askoz hobea dela 1999an. 3 familietatik 1ek ez ditu nahikotzat jotzen bere diru-sarrerak. Iritzi hori, ordea, alde batera utziko dugu, subjektiboegia baita beste ondorio batzuk ateratzeko. Euskal Aeko familien % 21ek baino ez dute uste beren ekonomi egoera okerrago egin dela azken hiru urteetan; 1994an % 45ekoa zen ehuneko hori. Familien % 20k (1994an baino bi aldiz gehiagok), aldiz, uste dute orain beren ekonomi egoera hobetu egin dela.

Gastuetan murriztapenen bat ezarri beharra % 47tik % 27ra jaitsi da. Diru-murriztapen horiek, batez ere eta hurrenkera honetan, aisialdiari, jantziei, oinetakoei eta etxearen hornikuntzari dagozkio.

Aipatzekoa da, bestalde, 1994an 4 familietatik batek uste izatea beren diru-sarrerak ez zirela finkoak; orain, berriz, 10 familietatik batek baino ez du uste hori. Era berean, soilik 10 familietatik 1ek

1 de cada 10 familias se ha visto obligada, en los últimos tres años, a pedir alguna vez ayuda económica a sus familiares.


Las diferencias geográficas son, además, muy marcadas, como muestra el mapa 5.

eskatu behar izan die diru-laguntza, azken hiru urteetan, bere familiartekoei.

Lurraldeen arteko aldeak, gainera, oso adierazgarriak dira, 5. mapak erakusten duenez.

5. Azken hiru urteotan murriztapen ekonomikorik ezarri beharra izan duten familien portzentajea

Porcentaje de familias que en los últimos tres años se han tenido que imponer restricciones económicas



